

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2011ko AZAROA

% 2 bidaiari gutxiago etorri da Euskal AEra 2011ko azaroan

Azaroko ostatu-gau kopurua % 1 gutxitu da

Eustatek landutako datuen arabera, 2011ko azaroan 158.264 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 2.829 gutxiagok; horrenbestez, % 2ko beherapena izan da. Araban % 7 igo da etorritako bidaiarien kopurua eta Bizkaian % 1; alabaina, Gipuzkoan % 10 jaitsi da kopuru hori.

Estatutik etorritako bidaiarien kopuruak % 3 egin du behera, eta atzeritik etorritakoen kopuruak % 2 egin du gora. Estatuko bidaiari gehiago izan da Araban, % 8ko igoerarekin; Bizkaian (% -1) eta Gipuzkoan (% -11), aldiz, estatuko bidaiari gutxiago izan da. Atzeritik etorritako bidaiarien kopurua % 2 igo da Araban eta % 7 Bizkaian; Gipuzkoan, aldiz, % 6 jaitsi da.

Estatuko bidaiarien artean, etorritako bidaiarien ehunekoei dagokienez, gehien hazi dira Andaluziatik, Aragoitik, Kanarietatik eta Nafarroatik etorritakoenak; jaitsi egin dira, bestek beste, Madrileko Erkidegotik, Valentziakotik eta Galiziatik etorritakoen ehunekoak. . Atzeritarren artean batez ere Alemaniatik, Erresuma Batutik, Austriatik Irlandatik eta Iparraldeko Herrialdeetatik etorritakoen kopurua gehitu da. Jaitsi egin da, bestek beste, Portugaldik, Belgikatik eta Holandatik etorritakoen kopurua.

2011ko azaroan 285.853 ostatu-gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, iazko azaroarekin alderatuta ostatu-gaua igaro dutenen kopurua % 1 gutxitu da, guztira 3.357 ostatu-gau gutxiago igaro baitituzte. Igarotako ostatu-gau kopuruak urte arteko bilakaera positiboa izan du Araban (% 9ko igoera); Bizkaian aurreko urtekoak errepikatzen dira praktikan (% 0), baina Gipuzkoan kopurua % 7 jaitsi da.

Batez besteko egonaldiaren iraupenak zertxobait egin du gora Euskal AE osoan, 2010eko azaroaren aldean: 1,80 eguneko egonaldia izan zen orduan eta aurtengoan 1,81 egunekoa izan da. Lurraldeka, Araban 1,78 egunetik 1,81 egunera igo da egonaldia; Bizkaian 1,79 egunetik 1,76 egunera jaitsi da; Gipuzkoan gora egin du: 2010eko azaroan 1,81 egunekoa izan zen eta 2011ko azaroan 1,86 egunekoa izan da.

Euskal AE osorako, plazen okupazio mailak % 2ko igoera izan du, 2011ko azaroan % 37,69koa izan baita. Araban okupazio mailak % 7 egin du gora: 2010eko azaroan % 33,62koa izan zen eta aurtengo azaroan % 35,84koa. Bizkaian ere gora egin du (% 2): 2010eko azaroan % 37,34koa izan zen eta 2011ko azaroan % 38,11koa. Azkenik, Gipuzkoan ere igoera gertatu da, okupazioa 2010eko azaroko % 37,62tik aurtengo azaroko % 38,08ra pasatu da eta

NEKAZARITZA-TURISMOA

Euskal AEra etorritako bidaiarien kopurua % 4 jaitsi da eta igarotako ostatu-gau kopuruak % 5 egin du behera, 2010eko azaroarekin alderatuta

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan 7.170 bidaiari erregistratu dira joan den azaroan; beraz, nekazaritza-turismoko establezimenduetan 2010eko azaroan erregistratu zirenekin alderatuta % 4 gutxiago izan dira. Lurraldeka, Araban % 14ko beherapena gertatu da, Bizkaian % 11 egin du behera eta Gipuzkoan % 6 igo da. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua % 5 jaitsi da Euskal AEn: Gipuzkoan % 3 igo da, Araban % 14 jaitsi da eta Bizkaian % 9 egin du behera. Erkidegora % 16 atzerritar gehiago etorri da; atzerritarren kopuruak nabarmen egin du behera Araban eta Bizkaian; Gipuzkoan, aldiz, kopuruak gorakada nabarmena izan du, ehunekoak aintzat hartuta.

Azaroan, guztira, 16.180 ostatu-gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan. Beraz, aurreko urteko hil beraren aldean % 5 jaitsi da gau kopurua. Urte arteko hazkunde tasak negatiboak izan dira Araban (% -7) eta Bizkaian (% -19); Gipuzkoan, aldiz, gora egin dute (% 6).

Bidaiarien batez besteko egonaldia laburtu egin da Euskal AE osoan, 2010eko azaroko batez bestekoaren aldean: iaz 2,28 egunekoa izan zen, eta aurtengo azaroan 2,26 egunekoa izan da. Araban % 9 hazi da batez besteko egonaldia, 2010eko azaroan 1,88 egunekoa izan zen eta 2011ko azaroan 2,04 egunekoa izan da. Bizkaian % 9 jaitsi da batez besteko egonaldia, 2010eko azaroan 2,53 egunekoa izan zen eta 2011ko azaroan 2,29 egunekoa. Gipuzkoan ez da aldaketa nabarmenik gertatu (% 0), 2010eko azaroko 2,35 egunekotik aurtengo azaroko 2,34 egunekora igaro da eta.

Plazen okupazio mailak % 9 egin du behera -% 14,80tik % 13,54ra igaro baita-, hiru lurraldeetan egin ere: Araban % 11 jaitsi da, Bizkaian % 19 eta Gipuzkoan % 1.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	11 2011	(%)	11 2010	(%)	Δ %	11 2011	(%)	11 2010	(%)	Δ %	11 2011	(%)	11 2010	(%)	Δ %	11 2011	(%)	11 2010	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	285.853	100	289.210	100	-1	48.472	100	44.566	100	9	138.335	100	138.272	100	0	99.046	100	106.372	100	-7
Estatukoak	205.696	72	211.261	73	-3	39.278	81	34.368	77	14	95.070	69	97.383	70	-2	71.348	72	79.510	75	-10
Atzerrikoak	80.157	28	77.949	27	3	9.194	19	10.198	23	-10	43.265	31	40.889	30	6	27.698	28	26.862	25	3
Hiriburua	183.739	64	184.398	64	0	36.340	75	33.680	76	8	93.305	67	93.573	68	0	54.094	55	57.145	54	-5
Litoral	27.210	10	28.250	10	-4	-	-	-	-	-	6.610	5	6.636	5	0	20.600	21	21.614	20	-5
Barnealdea	74.904	26	76.562	26	-2	12.132	25	10.886	24	11	38.420	28	38.063	28	1	24.352	25	27.613	26	-12
BIDAIARIEN SARRERAK	158.264	100	161.093	100	-2	26.771	100	24.972	100	7	78.377	100	77.237	100	1	53.116	100	58.884	100	-10
Estatukoak	118.137	75	121.611	75	-3	22.413	84	20.690	83	8	57.197	73	57.502	74	-1	38.527	73	43.419	74	-11
Atzerrikoak	40.127	25	39.482	25	2	4.358	16	4.282	17	2	21.180	27	19.735	26	7	14.589	27	15.465	26	-6
Hiriburua	100.709	64	101.683	63	-1	18.380	69	17.422	70	5	51.414	66	50.755	66	1	30.915	58	33.506	57	-8
Litoral	13.288	8	13.976	9	-5	-	-	-	-	-	3.998	5	3.874	5	3	9.290	17	10.102	17	-8
Barnealdea	44.267	28	45.434	28	-3	8.391	31	7.550	30	11	22.965	29	22.608	29	2	12.911	24	15.276	26	-15
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,81		1,80		1	1,81		1,78		2	1,76		1,79		-2	1,86		1,81		3
BETETZE-MAILA PLAZAKA	37,69		36,81		2	35,84		33,62		7	38,11		37,34		2	38,08		37,62		1
Hiriburua	44,06		42,39		4	39,60		36,75		8	45,41		44,32		2	45,15		43,21		4
Litoral	33,58		34,90		-4	-		-		-	21,27		20,89		2	41,24		43,96		-6
Barnealdea	28,78		28,39		1	27,91		26,62		5	30,39		29,86		2	26,95		27,26		-1
BETETZE-MAILA GELAKA	48,38		47,27		2	45,66		44,16		3	49,85		49,25		1	47,80		46,15		4
Hiriburua	56,39		55,40		2	51,30		50,31		2	58,86		58,44		1	56,41		54,09		4
Litoral	38,87		40,78		-5	-		-		-	27,19		28,33		-4	46,01		49,60		-7
Barnealdea	38,59		35,75		8	31,91		30,08		6	41,22		38,41		7	37,85		34,80		9
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	16.180	100	17.006	100	-5	3.437	100	3.677	100	-7	4.451	100	5.502	100	-19	8.292	100	7.827	100	6
Estatukoak	14.608	90	14.808	87	-1	3.157	92	3.569	97	-12	4.185	94	4.410	80	-5	7.266	88	6.829	87	6
Atzerrikoak	1.572	10	2.198	13	-28	280	8	108	3	159	266	6	1.092	20	-76	1.026	12	998	13	3
BIDAIARIEN SARRERAK	7.170	100	7.464	100	-4	1.685	100	1.956	100	-14	1.945	100	2.174	100	-11	3.540	100	3.334	100	6
Estatukoak	6.713	94	7.070	95	-5	1.620	96	1.874	96	-14	1.851	95	2.037	94	-9	3.242	92	3.159	95	3
Atzerrikoak	457	6	394	5	16	65	4	82	4	-21	94	5	137	6	-31	298	8	175	5	70
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,26		2,28		-1	2,04		1,88		9	2,29		2,53		-9	2,34		2,35		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	13,54		14,80		-9	13,17		14,78		-11	11,96		14,72		-19	14,76		14,87		-1
BETETZE-MAILA GELAKA	15,05		17,19		-12	14,22		17,14		-17	13,00		17,39		-25	16,88		17,07		-1

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01.

[ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua](#)